

noaua



**Herrian sortutako
biohondakina
Lartzandieta baserrian
konpostatzen hasi dira**

**Jon Aizpurua, Usurbil KE:
“Euskadiko lauko finalean
talde baten nortasuna
erakutsi genuen”**



Dena prest

Korrikari harrera beroa egiteko



USURBILGO HAUR ESKOLA



0 eta 3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA
2020, 2021 eta 2022 urteetan jaiotako hurrei zuzenduta

• **ATE IREKIEN EGUNA:**
Apirilaren 27an, asteazkena
17:00etan euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz.

• **MATRIKULA EPEA:** apirilaren 28tik maiatzaren 11era
INFORMAZIOA ETA HITZORDUA: 943 374061 telefonoan
8:30etik 12:00etara
edo haureskola@udarregi.eus-en

Helbidea: Ugarte, 9 20170 USURBIL

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu



ORIANTE
Institutua

2022-2023
ikasturtea

BATXILERGOA

ON-LINE /
IKASTETXEAN
martxoaren 28tik
apirilaren 8ra

✓ Zientziak eta
Teknologia

✓ Giza eta
Gizarte Zientziak

✓ Publikoa

943 89 94 94 943 89 94 92 www.oriarte.eus

Albisteak iruditan

ONCE Euskadikoak bisitan izan dira

Bisitan izan genituen ONCE Euskadiko helduen taldeko kideak martxoaren 29an. Dantzari eta txistulariek aurreku batekin egin zieten harrera Mikel Laboa plazan, Saizar sargardotegira bazkaltzera joan aurretik.

“Asmoa da helduek ONCE-rekin duten hartuemana mantentzea, babesa eta laguntza jasotzen segitzea. ONCE haien bigarren etxe gisa sentiaraztea, baita gozamenerako gunea eskaintzea eta desgaitasun bera dutenen artean kontaktu hori izatea”, Jabier Rios ONCE Euskadiko lehendakari ordeak NOAUA!ri adierazi dionez.

Pozarren ziren, bi urteotako osasun krisialdiaren ostean helduak ere berriz biltzen hasi direla ikusita. “Urte honetan normaltasunari martxa hartu nahian gabiltza”. Pandemiak eta ezohiko garai hau kudeatzeko moduak esan beharrik ez da zer nolako eragina izan duen adinekoen kolektiboan eta tartean, ikusmen desgaitasuna zutenen artean. “Jendea beldurtu



Langile eta boluntarioak Usurbilen izan ziren martxoaren 29an, “180 bat lagun guztira”.

da, tamalez bat baino gehiago hil dira. Eta ohiko jarduerekin berriz hastea kosta egin da. Horregatik gaurko ekitaldiak badu sinbolikoki pisu handia”.

Alboan

ONCE Euskadiko ordezkariak gogoan dute nola “pandemian ginela milaka telefono dei egin genituen, ONCE gertu

sentitzen segi zezaten”. Horregatik diotenez, “jendeak eskertu duelakoan gaude eta ekintza hauen eskaria horregatik onaitzen ari da”.

Usurbilen bildu ziren joan den astean Arabako 50 bat lagun, beste hainbeste bizkaitar, eta 40 bat gipuzkoar. “Langile eta boluntarioekin, 180 bat lagun guztira”.

Laburrean

Intzidentzia beherantz

Kolektibo zaugarriko kide ez diren positibo asintomatikoentzat eta sintoma arinak dituztenentzat isolamenduak ezabatu egin dira. Kasuotan nola jokatu? Informazioa euskadi.eus atarian. Egunotan intzidentzia 634,12tik 507,29ra jaitsi da.

Greba anbulatorioetan

“Osakidetzaren inmobilismoaren aurrean”, ELA, Satse, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek apirilaren 8rako Lehen Arreta Zerbitzuan eta maiatzaren 16an ospitaleetan greba eguna deitu dute, kalitatezko osasun zerbitzu publikoen alde.

NOAUA!rik ez Aste Santuan

Udaberriko oporraldia tarteko, datozen bi asteotan ez da NOAUA!rik izango. Hurrengo aldizkaria, apirilaren 29an. Ordurako ohar edo zorion-agurrik baduzue hilaren 25a baino lehen helarazi erredakzioa@noaua.eus helbidera.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinaatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Ugaitz Agirre

Eromerian

Asteroideak elkarren artean orbitan talkan igurtzian. Gaua aspaldi jausi baita bere izara azpian jolas dezaten izara zurien pean sartu ez diren horiek. Soilik argi elektriko lotsatia ausartzen da aurpegi silueta lausoak marratuz formak iradokitzena.

Udako gau giro paregabea. Akaso norbaitentzat beroegi? Hemen dagoena ikusi nahi ez duenak, itxi ditzala leihoteak! Noizbehinka ufaka hurbiltzen den haize finak hozkirri atsegina eragiten du lepo atze biluzietan. Garagardoaren freskotasuna zintzurretik behera barne beroa bare dezan, oraingoz behinik-behin. Hau ote larunbat gaueko sukarra?

Erromeriaren anabasan tan-tarratapatan-tapatan jira eta oin arinen artean tan-tarratapatan-tapatan begirada baten distira nabaritu du Maialenek. Bere galaxiatik harago egonik ere, zeinen distiratsua, eta lotsa gustagarriak lagunetara itzuli badu ere, han jarraituko ote duen desiran tan-tarratapatan-tapatan altxatzen ditu berriro ere begiak bere zirkulutik harago. Han dira oraino eta desiraren desiraz barne poztasuna irribarre bihurtu da ezpainenat.

Nor ikusi dun Mai?

Ainara ere ingurura begira hasi da lagunari barrea nork



“Korrikaren euforiara batu dira tipi-tapa tarratapatanaren erritmora zeuden guztiak”.

UGAITZ AGIRRE

“Erantzuna emateko astirik izan gabe, bozgorailuetatik aditu da tipi-tapa-tipi-tapa KORRIKA! Lekukoa airean daramate kilometroak, elurteak eta gau hotzak atzean utzita”

eginarazi dion ezagutu nahian. Maialeni dion estimuagatik egiten du. Bilaketan dela, baina, ipurdian jo du alboan duen lagunak tan-tarratapatan-tapatan dantzarako gonbita luzatuz.

Zertan habil Maider?

Lagunaren deskuidua probesturik bere galaxiatik urrundu eta barrarako bidea hartu du Maialenek. Bi garagardo eskatuta ditu urrunean ikusitako mutilak eta eskuetara botila hotza emanik, zure zain nengoen batekin agurtu du.

Oraindik epeltzeko denborarik ere ez dute izan ba.

Botila ahora eraman dute biek ala biek begiak ezin kendurik batak besteari. Tan-tarratapatan-tapatan motelduak eskuak neskaren gerrira hurbiltzera eraman du. Maialenek, gonbita onartuz, sorbaldan jarri du berea eta bi garagardo botilak elkarren aurka kolpatuz, topa egin dute bat-bi-hiru bat-bi-hiru bat-bi-hiru horretan.

Begi-jolasean, izenaz galdegin dio. Hark, neskatzak nahi moduan deitzeko erantzun, eta Maialenek anonimoekin ez duela jolasten belarrira xuxurlatuz bat-bi-hiru dantzarekin amaitzeko keinu egin du.

Oier, ahoskatu du presaka eta beragana hurbilduz beste behin ere.

Musikak, aldiz, bat-bi-hiru bat-bi-hiru bihurtu du tarratapatan-tarratapatan-tarratapa. Maialen askatu da Oierrengandik eta bere aurrean hasi da

dantzan oinak arin tarratapatan eta Oierrek neska imitatuz mugitzen ditu aldakak gora eta behera eta hatzetan hots berriro ere iji eta aja begien-jolasa.

Beste bikote bat gehitu zaie. Oierri ez zaio hainbeste gustatu ere, baina nor da dibertsioaren mugak itzeko? Ezker-eskuin mugimenduan ohartu da mutila sartu berri den neskak disimuluan nola begiratzen duen. Beltzaran liraina, xarmagarria, tarratapatan eta Oierrek erantzun dio irribarrearekin jakinik bere begiak Maialenengan daudela. Behinik gau honetan. Arrimatzan saiatu zaionerako, baldarkeria irudi ez dezan moduan hartu du Maialenenganako bidea tarratapatan eta jarri zaio alboan, ipurdia ipurdiarekin.

Ba niri neska polita iruditzen zait, pegatzen duzue, aitortu dio irribarre handiarekin Maialenek.

Gaur gauean begiak baten-tzak bakarrik ditut.

A bai? Eta esan, nor da zortekoa?

Erantzuna emateko astirik izan gabe, bozgorailuetatik aditu da tipi-tapa-tipi-tapa KORRIKA! Lekukoa airean daramate kilometroak, elurteak eta gau hotzak atzean utzita. Korrikaren euforiara batu dira tipi-tapa tarratapatanaren erritmora zeuden guztiak. Hamaika egunez eta harago, erritmoa zein doinua izanik ere hau hori hura.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Pentsiodunen batzarra Sutegin

Duintasuna Gipuzkoako jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak eta Gaur Geroa elkarteak deituta bilkura egin zuten martxoaren 31n Sutegin. 2021eko balantzea eta aurrera begira jorratu beharrek bidea mintzagai izan zuten hitzorduan zehar.

Prezioen garestitzea, bizi-baldintza duinen aurka

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak bestalde, berriki egindako batzarrean salatu duenez, “elektrizitatearen, erregaien eta elikagaien prezioa garestitzeak bizi-baldintza duinak lortzeko ditugun aukerak murrizten ditu”.

Otsaileko KPIa %7,4 igo ostean, kezka agertu dute. “2020an pentsioen %27,3 pobrezia mugaren azpitik zeuden (688 euro) eta %50 baino gehiago 1.000 eurora iristen ez badira, beldur gara 2021eko pentsioetan erosteko ahalmena %3 galdu ondoren eta 2022an pobrezia-egoera hori galduko bada”.

Bergarako jubilatuta elkartekoak bisitan

San Xosepe izeneko jubilatuta eta pentsiodunen elkartetik, 150 bat lagun bisitan izan genituen martxoaren 30ean Usurbilen. Herrian barrena osteratxo egin zuten, Gure Pakea Usurbilgo jubilatuen elkarteko kideak gidari zituztela. Artzabal atarian atera genien ondoko talde argazkia. Gero Aginaga sagardotegira bazkaltzera joatekoak ziren.



Erakundeek “egiten dutena baino askoz gehiago egin dezakete prezioen hazkunde neurrigabea bultzatzen duen espekulazio finantzarioa eteteko”.

PENTSIODUNAK

“Elektrizitatearen, erregaien eta elikagaien prezioa garestitzeak bizi-baldintza duinak lortzeko ditugun aukerak murrizten ditu”

Errenten itunaren “tranpa”

Errenten itunarekiko ez dira fio. “Tranpa bat da, gerra baiten aitzakian soldatak eta

pentsioak murriztea helburu duena”. Soldaten eta pentsioen doikuntza eta enpresen mozkinen hazkunde ez dute koiunturaltzat jotzen, “egiturazkoak baitira eta kostuak murrizteko eta etekinak hobetzeko enpresa-estrategia eta korporatiboaren parte baitira”. Zenbait datu aipatzen dituzte adibide moduan: soldata-errentek estatuko Barne Produktu Gordinean duten pisua 2009ko

%66,6tik 2020ko %48,47ra murriztu dela, Ibox 35 indizeko enpresek 50.000 milioi euro mozkin baino gehiago eskuratu zituztela edota bankuek 16.676 milioi euroko irabaziak, argindar enpresek mozkinen %23ko iguera (6.000 milioi euro) kontsumoa %6ra jaitsi arren....

Premiazko neurriak

Egoera honen aurrean, “pertsona guztiek funtsezko ondasun bat, elektrizitatea, eskura izango dutela bermatzeko neurri zehatzak eta premiazoak eskatzen ditugu; gizarte-larrialdiko kontua da, eta erakunde publikoek muturreko neurriak hartu behar dituzte”. Erakundeek “egiten dutena baino askoz gehiago egin dezakete prezioen hazkunde neurrigabea bultzatzen duen espekulazio finantzarioa eteteko”. Besteak beste, funtsezko zerbitzua den heinean, “kontrol publikoaren pean egon behar du, eta ez oligopolio elektrikoaren zerbitzura”.



San Xosepe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteko 150 bat lagun etorri ziren gure artera pasa den astean.

Bertso-ibilaldia Aginagan

Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio bertsolariekin, “sagardoaren paisaia kulturala” ezagutzera xede duen bertso-ibilaldia antolatu du Alkartasuna kooperatibak apirilaren 30ean. Goizeko 11:00etan Aginagako plaza-tik abiaraziko duten ekimena Aginaga goiko sagastietan barrena egingo da.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Imanol Iribar: “Gabonetan, Skövde hirian, 15:00etarako ezkututzen zen eguzkia”

Abuztuan iritsi zen Imanol Iribar Suediako Skövde hirira. Ikasketak kanpoan amaitzeko nahiak eraman zuen iparraldeko herrialde horretara, eta bertan egongo da ikasturtea amaitu arte. NOAUA! berarekin izan da esperientzia horren berri izateko.

NOAUA! Zerk eraman zaitu Suediara?

Imanol Iribar: Abuztuan iritsi nintzen Suediara. Denborarekin etorri nahi izan nuen lekua hobeto ezagutu eta ikasturtea behar bezala hasteko. Astebetxo lasai-lasai egin nuen, eta hurrengo astean egin genuen “Introduction Week”, ikasle berriei ongietorria emateko aste berezia. Bertan, unibertsitatea ezagutu genuen eta, batez ere, nola funtzionatzen duen. Bi aste beranduago pixkanaka ikasturteari hasiera eman genion.

Zuk aukeratu zenuen Suediara joatea edo tokatu egin zitzazun?

Hasieratik erabakita neukan iparraldeko herrialderen batera joan nahi nuela, zela Finlandiara, zela Suediara edo zela Norvegiara. Elurra eta hotza nahiago ditut beroa baino. Lehen aukera horiek egin nituen, eta kasualitatez, libre geratu ziren plaza batzuk eta zortea



Suedian ari da ikasten, Skövde hirian. “Azken momentuan Erasmusean baiezkoa eman zidatenez, oso denbora gutxi izan nuen dena antolatzeko”.

IMANOL IRIBAR

“Ikasle-egoitza batean bizi naiz, eta 13 euskaldun izan gara lehen sei hilekoan. Beraz, euskara gehiago praktikatu dugu ingeleza baino”

izan nuen azken momentuan Erasmus programan sartzeko. Hasiera batean urte erdia egin nahi nuen, Gradu Amaierako Lana ingelesez egiteak beldur pixka bat ematen zidan eta nahiago nuen azken fase hori

Arrasaten egin. Azken momentuan Erasmusean baiezkoa eman zidatenez, oso denbora gutxi izan nuen gauzak behar bezala antolatzeko eta urte osorako eskaintza hau egin zidaten. Momentuko urduritasunarekin erabaki behar izan nuen aurrera jarraitu edo aukera horri muzin egin, eta irakaslearekin hitz egin eta aurrera egitea erabaki nuen. Ez nekien urte erdia egitea posible izango zen, baina zirt edo zart egin behar zen eta argi neukan Erasmusa egin nahi nuela.

Baimena eman zidaten urte erdia egiteko, baina urte osoko aukera hartuz gero, Suediako Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak, biek emango zidatela titulua esan zidaten, eta beraz, aurrera egitea erabaki nuen. Beraz, arlo berdinean bi titulu izango ditut.

Ingelesak beldur pixka bat ematen zizula aipatu duzu. Nola moldatzen zara hizkuntza horretan orain?

Ikasle-egoitza batean bizi naiz, eta lehen hiru solairuetakoak denak erdaldunak, eta tartean 13 euskaldun izan gara lehen sei hilekoan. Beraz, euskara gehiago praktikatu dugu ingeleza baino. Klaseak ingelesez egiten ditut eta lehen esan bezala, GRALA ere ingelesez egin beharko dut. Joan zen urtean ere, Arrasaten, hirugarren urteko lehen sei hilekoa ingelesez egin nuen, hala egin beharra dagoelako. Beraz, moldatzeko moduan.

‘Tokitan’ atala

NOAUA!n zabaldu dugun atal berri honi ‘Tokitan’ izena ipini diogu. Atzerrian bizi diren usurbildar gehiago elkarrizketatu nahi ditugu txoko honetan. Egoera horretan den herritarren bat eza gutzen baduzu, bidali bere izena gure posta helbidera: erredakzinoa@noaua.eus

“Ingeniaritza mekanikoa amaitzen ari naiz”

NOAUA! Skövdeko unibertsitatea eta Mondragon oso ezberdinak al dira?

Imanol Iribar: Ingeniaritza mekanikoa amaitzen ari naiz. Unibertsitatea Mondragonen oso antzekoa da. 1977koa da Suediako eta hiria, berriz, militarrek sortu zuten. Orain-

dik militar asko daude bertan. Unibertsitatea militarrena izan zen garai batean, eta gerora, eraikin horiek guztiak aprobetxatu egin dira. Bost edo sei eraikinek osatzen dute kanpua. Arrasatekoaren oso antzekoa da neurria kontuan hartuta ere. Hala ere, izugarriko erbia

dabil kanpusean azken aldian, oreinaren neurrikoa. Halakorik ez daukagu Arrasaten.

Euskaldun eta erdaldunekin pasatu duzu denbora gehiena, beraz. Atzerriko jendea ezagutzeko aukera ere izan al duzu?

Bai, ia ezinbestean egiten dituzu atzerriko lagunak. Ikasle-egoitzan, nire solairu berean nigeriar bat bizi da, eta askotan aritzen gara egongelan berarekin jolasean. Harekin ingelesez egiten dugu, noski. Aleman asko ere badaude bertan.

“Datorren urtean industriari lotutako master bat egingo dut Arrasaten”

NOAUA! Suediarrak nahiko hotzak direla esaten da sarri. Hala iruditzen zaizu zuri ere?

Imanol Iribar: Oso formalak direla esango nuke nik. Gehienak ilehoria, argalak eta altuak dira, esterotipoei jarraiki. Gizartean distantzia mantentzen dute, baina laguntzeko garaian oso eskuzabalak dira. Gogoan dut behin azterketa batean, irakasleak azalpena suediarrez eman zuen eta ez nuen ezer ulertu. Behin bukatu zuenean, aurrean eserita neukan suediarrak itzuli erdi egin eta ea esandakoa azaltzerik nahi nuen galdetu zidan. Gisa horretako gauzetarako trebetasun sozialak badituztela esango nuke, baina gainontzekoan bakoitza bere munduan bizi da.



“Suedia asko gustatu zait, baina familia eta lagunak Euskal Herrian dauzkat eta baserrian aritzea ere asko gustatzen zait”.

Suediar asko ez dituzu eza-gutzen, beraz.

Ez. Ikasle-egoitzan ere ez dago batere. Bat bakarra egon zen, eta ez zen gurekin ia batere harremandu.

Suediarrak eta Suedia alde batera utzita, Erasmusera joatean ohikoa izaten da asko

IMANOL IRIBAR

“Gabonetan, Erasmusen geunden usurbildarrak Budapesten elkartu ginen, festak elkarrekin pasatzeko”

bidaiatzea. Zure kasuan ere hala al da?

Bai. Lehendabizi Suedian, hemen inguruan ditugun hiri batzuk bisitatu genituen: Estocolmo, Gottenburgo... HJO izeneko laku batera ere joan ginen. Euskal Herriaren neurria du, eta hemendik nahiko gertu dago. Ni nagoen hiria bi laku handiren tartean dago, eta beraz, horrelako lekuak bi-

sitatu ditut. Suediatik kanpo, Kroazian izan ginen, beste bidaia oso potente bat egin genuen Laponiara. Astebete eman genuen Finlandiako iparraldean, Ipar Poloan. Aurora borealak ikusteko aukera ere izan dut. Gabonetan, Erasmusen geunden usurbildarrak elkartu ginen Budapesten gabonak elkarrekin pasatzeko.

Bidaia gehiago prest dituzu?

Norvegia aldera joatea daukagu buruan, iparraldera. Kopenhage ere gustatuko litzaiguke ikustea, beheago etorrita Austria inguruak eta beste askoren bat ere badugu.

Behin hango ikasketak amaituta, etxera itzuliko zara uda partean. Zer asmo duzu gero?

Datorren urtean Arrasaten industriari lotutako master bat egingo dut, ziur aski. Suedia asko gustatu zait, baina familia eta lagunak Euskal Herrian dauzkat eta baserrian aritzea ere asko gustatzen zait. Suedian oso esperientzia ona ari naiz izaten, baina aldi baterako. Nire etorkizuna Euskal Herrian dago.

“Elurra jada joan da, baina lakuek izoztuta jarraitzen dute”

NOAUA! Bikain ari zara pasatzen, baina Usurbildik ere zer-bait botako duzu faltan.

Imanol Iribar: Batez ere faltan botatzen dudana eguzkia da. Jada pixkanaka geroz eta eguzki ordu gehiago ditugu hemen, baina Gabonetan 10:00ak aldera eguzkia ateratzen zen eta 15:00etarako sartu. Orain, ordubetexko bat irabazi dugu, garai haue-tarako. Azken aldi honetan nahiko giro ona egiten du.

Oraintxe bertan 4^c egiten ditu, baina azaroan edo abenduan aste pare batean ez ginen 0^c-tik pasatu. Gauez -13^c inguru egiten zituen, eta egunez ere 0^c-tik pasatu ezinik. Joan zen astean, elurra egin zuen dezentte. Elurra jada joan da, baina lakuek izoztuta jarraitzen dute oraindik ere.

Gauez parranda egiteko ere, hotza arazo da?

Hiria nahiko kozkorra da.

60.000 biztanle inguru ditu. Parrandarako ere ez daude leku gehiegi. Covid-19ari lotutako neurri guztiak kendu dituzte jada, sintomak izanda ere ez dugu PCR probarik egin behar. Hala ere, parranda oso mugatua da. Badugu diskoteka moduko bat unibertsitateko ikasleentzat. Gai jakinak jartzen dituzte, eta mozorrotuta joaten gara batzuetan. Hirian ere badago diskoteka bat eta oso-oso gutxitan bada ere, noizean behin joaten

gara. Sarrera 15 euro ordaindu behar da, eta beraz, ez gara maiz joaten. Ikasle-egoitzan bertan parrandak antolatzen ditugu. Bada arazo bat, ordea. Garagardo latak ezin dira supermerkatuetan erosi; 3,5 gradurainokoak baino ez dituzte saltzen. Gradu gehiagoko alkohola denda berezi batzuetan erosi behar da. Gobernuarenak dira. Litro erdi garagardok 1,5 euro balio du, baina moldatzen gara.

Lanbide Heziketa euskaraz egitea sustatu nahi dute Buruntzaldeko Udalek

Buruntzaldeko sei udalek (Urnieta, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbil) Lanbide Heziketa D ereduan egiteko ekimen berria jarri dute martxan. Posta arruntaz edo ikastetxeen bidez, gazteei Buruntzaldeko Lanbide Heziketako ikastetxeek eskaintzen dituzten erdi eta goi mailako zikloen informazioa banatuko zaie.

Lanbide Heziketa D ereduan egiteak ordu arte ikasitako euskara sendotzeko eta hobetzeko aukera eskaintzen du. Euskarak gero eta toki gehiago du enpresetan eta gizartean, eta euskaraz lan egiteko gai izateak atak irekitzen ditu lana topatzerako garaian. Euskarara ongi jakitea erabakigarria izan daiteke formatzen ari diren gazte horien etorkizunean. Ondorioz, funtsezkotzat dute Buruntzaldeko Udalek lanbide heziketako zikloa aukeratzeko garaian D ereduakoa lehenestea.

Horretaz gain, ikasketak D ereduan eginez gero, euska-



Lanbide Heziketa D ereduan egiteak ordu arte ikasitako euskara sendotzeko eta hobetzeko aukera eskaintzen du.

ra agiriak eskuratzeko aukera izango da: B1 erdi mailako zikloa eginez gero, eta B2 goi mailakoa eginez gero.

Aukera oparoa Zubietan

Zubietako Lanbide Heziketa zentroan, Usurbil LHIn, aukera zabala eskaintzen dute gogoko ikasketak euskaraz egin ahal izateko. Erdi mailako zikloei dagokienez, administrazio kudeaketa, Hozteko eta Girtzeko instalazioak, Instalazio

elektrikoak eta automatikoak, Beroa sortzeko instalazioak eta Mekanizazioa dituzte aukeran. Goi mailako zikloa nahi izanez gero, Administrazioa eta Finantzak, Automatizazio eta Robotika Industrialak, Energia eraginkortasuna eta eguzki-energia Tematikoa, Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa, Instalazio termiko eta fluidodunen mantenimendua eta Energia berriztagarriak.

San Markoren sentsibilizazio kanpaina

Mikel Laboa plazan edota Oiar-do Kiroldegi atarian “totem informatzaileak” ikusiko zenituzten egunotan. Urte amaieratik, San Marko Mankomunitateak, Ecoembesek eta Ecovidriok abian duten kanpainari lotutakoak dira. Apirilaren 12ra arte mankomunitatea osatzen duten 10 udalerritan ikusgai jarriko dituzte. “Helburu nagusia, herritarrak plastikozko, metalezko eta brik motako ontziak bereiztearen garrantziaz kontzientziatzea da, baita papezko, kartoizko, beirazko ontziak eta hondakin organikoak bereiztearen garrantziaz ere, bakoitza bere banaketa-lerroetan utziz: horia, urdina, berdea



2020an %52ko gaikako bilketa zuen San Markotik ekarri dute erakusketa ibiltaria, iaz %87,27ko gaikako bilketa zuen udalerrri honetara.

eta marroia”, diote San Markotik. 2020an %52ko gaikako bilketa zuen San Markotik ekarri

dute erakusketa ibiltaria, iaz %87,27ko gaikako bilketa zuen udalerrri honetara.

PSE-EEK eta udal gobernuak akordioa egin dute udalean urritasun funtzionala duen pertsona bat kontratatzeke

PSE-EEK eta udal-gobernuak akordioa egin dute Usurbilgo udalean adimen-urritasuna duen pertsona bat kontratatzeke urtebetez. Hasiera batean, PSE-EEK mozioa aurkeztu behar zuen martxoaren 24an, baina adostasunaren ondotik erretiratzea erabaki zuen. Mozio horretan, udal gobernuari eskatzen zion kreditu-aldaketa bat egiteko, udalak Pauso Berriak programan partaidetza diruz laguntzeko aurrekontu-partida bat adosteko.

“Udarregi, Fagor Ederlan eta Udala eredu dira”

Francisco Suarez pozik agertu da lortutako akordioarekin. “Udarregi Ikastola, Fagor Ederlan eta orain Usurbilgo Udala ageriko ereduak dira, positiboak eta sozialki eraldatzaileak, eta desgaitasun funtzionala duten pertsona horiek lan-merkatuan sar daitezkeen erakusleioa dira”, esan du PSE-EEren bozeramaileak. Hilaren 8an, bozeramaile sozialista eta Usurbilgo udaleko alkateorde Beñat Larrañaga Pauso Berriak programako ardura-dunekin bilduko dira. Programaren parte diren Atzegi eta Gureak-ek ere parte hartuko dute. Atzegi, Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Gipuzkoako Elkarte da, eta Gureak, merkatu lehiakorretan zerbitzu integrala eskaintzen duen enpresa taldea.

Antxeta

TABERNA



egunero irekitzen dugu!

- eguneko menua (astelehenerik-larunbatera)
- jaiegunetan: asteburuko menua
- ogitartekoak, pintxoak, razioak, oilasko erreak, hanburgesak, paellak eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

TXAPELDUN

JATETXEA

ASTE SANTUAN
ORDUTEGI BEREZIA

17 - 18
JANAK ETA AFARIAK
EMANGO DITUGU



TXAPELA BURUAN TA JATEKO MODUAN

MUNA LURRA KALEA 2, 20170 USURBIL, GIPUZKOA
943 21 34 03 - @txapeldun_jatetxea

korrika.eus

22.korrika
HITZEKIN

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

**MATERIALA
HEMEN
SALGAI:**

Korrika dendetan,
AEKren euskaltegietan eta
www.korrika.eus atarian.

Jon Aizpurua, Usurbil KE: “Jende pila bat hurbildu zen sailkapen partidak ikustera”

Usurbil KE eskubaloitako taldeko jubenil mutilek Espainiako Txapelketarako sailkapena lortu berri dute, eta erronka berriari heltzekotan dira orain. Jon Aizpurua entrenatzailearekin izan da NOAUA! sailkapenari buruz hitz egin eta Espainiako txapelketari zein itxura hartzen dioten jakiteko gogoz.

NOAUA! Lortu duzue Espainiako Txapelketarako sailkatzea. Jokatu aurretik aukera garbirik ikusten al zenuten?

Jon Aizpurua entrenatzailea: Hasieran egoera nahikoa beltz ikusten genuen. Kontuan hartu behar da gure aurkariak Bidasoa, Erreterria eta Zarautz zirela, jokalaririk gehiago dituzte herriak handiagoak direlako, eta horrek aukera gutxiago ematen zizkigun hasieratik.

Beraz, Euskadiko lauko finalan aldarte onean aritu zinetela esan daiteke, ezta?

Horrelako txapelketetan urduritasuna izaten da nagusi jokalaririk eta teknikoon artean. Onena edo txarrena izateak bigarren plano bat hartzen du. Jokatzeko jakin behar izaten da, hasierako “kiniela” horiek askotan ez baitute ezertarako balio izaten.



Euskadiko lauko finala martxoaren azken asteburuan jokatu zen Zarautzen. “Talde baten nortasuna erakutsi genuen, eta hori da garrantzitsua”, Jon Aizpurua adierazi digunez.

EUSKADIKO LAUKO FINALA

“Argi genuen ostiral zein igandeko partidak irabazi beharko genituela Espainiako Txapelketarako sailkatu ahal izateko”

Argi genuen Zarautzek irabaziko zuela txapelketa eta ostiral zein igandeko partidak irabaziko beharko genituela bigarren

postu hori lortu eta Espainiako txapelketan aritzeko. Ostiral eta igandeko partidak motibazio gehiagorekin hartu genituen eta gauzak guk nahi bezala ateraziren. Talde baten nortasuna erakutsi genuen, eta hori da garrantzitsua.

Azken partida erabakiorra gol bakarreko aldearekin irabazi zenuten. Azken une horietan izugarriko tentsioa izango

zenuten, ezta?

Zazpi goleko alde ateratu genien hasieran, baina pixkanaka pixkanaka markagailua berdintzen hasi zen, eta tentsioa izugarria izan zen amaieran. Zorionez, gu izan ginen garaile eta horrek eman digu Espainiako txapelketarako sailkapena. Jende pila bat hurbildu zen sailkapen partidak ikustera eta benetan eskertuta gaude jaso dugun harrera beroagatik.

“Disfrutatzen goaz”

NOAUA! Espainiako txapelketa non eta noiz izango den badakizue?

Jon Aizpurua entrenatzailea: Apirilaren 22an, 23an eta 24an jokatu da, baina oraindik zehazteko dago non izango den. Espainiako 32 talderik onenen artean sailkatu gara eta gure aurkariak zein izango diren ez badakigu ere, gogotsu hartuko

ditugu datozenak.

Zein itxura hartzen diozue? Emaizta onak lortzeko moduan al zaudete?

Disfrutatzen baino ez goaz, ez daukagu bestelako helbururik. Ez dugu postu jakirik lortzeko asmo berezirik. Ondo pasatzen badugu, geure helburua beteta.

Euskadiko lauko finala

Euskadiko lauko finalera lau talde hauek sailkatu ziren: Usurbil KE, Ereintza Aguaplast, BM Bidasoa Irun eta Zarautz ZKE. Nor baino nor aritu ziren, Espainiako Txapelketarako txartela lortzeko asmoz.

Lehen partidaren, Usurbil KE-k 24-20 irabazi zion BM Bidasoa Irun taldeari.

Zarautzko taldea izan zen bi-

garren aurkaria eta usurbildarrek 29-19 galdu zuten.

Azken partida erabakigarria, Erreterriako Ereintza Aguaplast taldearen aurka gol bakarreko aldearekin irabazi zuten: 24-23 azken emaitza.

Emaizta hauei esker, Jon Aizpurua mutilek Espainiako Txapelketa jokatu ahal izango dute Pazko Astearen.

“Euskal Ligan bigarrenak izan gara aurten”



Usurbil KE taldeko jubenil mutilen taldea denboraldi ederra osatzen ari da.

NOAUA! Espainiako txapelketan lortutako emaitzak datorren denboraldian eragingo du ala maila berean jarraituko al dute?

Jon Aizpurua entrenatzailea: Ez, ez dauka inolako eraginik.

Datorren urtean, berriz ere aukera izango dugu sailkapena jokatu eta berriz ere finaleira sailkatzeko, aurten bezala. Euskal Ligan gaude aurten eta bertan jarraituko dugu datorren urtean ere.

Zer moduz amaitu duzue aurtengo liga?

Euskal Ligan Euskadiko 8 talderik onenak aritzen dira nor baino nor. Aurten, jada amaitu dugu liga eta bigarren postua lortu dugu.

Euskal selekzioarekin

Apirilaren 9tik 14ra selekzio autonomikoetako Espainiako Txapelketa jokatuko da Murtzian eta lau usurbildar arituko dira euskal selekzioetan.

Peru Iraeta Agirre

Jokalaria. Gizonezko kadete mailako euskal selekzioan.

Udane Makazaga Estella

Jokalaria. Emakumezko jubenil mailako euskal selekzioan.

Mikel Alzaga Martinez

Entrenatzailea. Emakumezko jubenil mailako euskal selekzioan arituko da.

Xabat Beloki Seguro

Entrenatzailearen laguntzailea. Emakumezko jubenil mailako euskal selekzioan arituko da.

Euskal Pilota Egokitua sari nagusia Beñat Lizaso eta German Elkororentzat izan zen

Beñat Lizaso usurbildarrek eta German Elkororen beasaindarrak Euskal Pilota Egokitua sari nagusiko txapela jantzi dute. 25-21 irabazi zioten Meunier eta Cabanne Baionako bikoteari eta txapela jantzea lortu zuten igandean Astelena pilotalekuan.

Beñat Lizasoren bosgarren finala izan zen honako hau, 2018tik 2022 arteko final guztiak jokatuta. Bost final horietan, hirutan lortu du txapela jantzea. Bikote izan duen German Elkororen beasaindarrak lehen aldian txapelketan parte hartzen, baina maila ederra erakutsi zuten txapelketan zein final handian.

Baionarrek gogor ekin zioten finalari eta lehen erdian



Beñat Lizaso (ezkerrean) eta German Elkororen 25-21 emaitzarekin nagusitu ziren finalean.

nagusi izan baziren ere, bikote gipuzkoarrak pixkanaka partidand sartzeari lortu zuten eta par-

tida erdirako oreka lortu zuten. Azken txanpan, gipuzkoarren nagusitasuna nabaria izan zen,

eta amaieran markagailuak ere hala erakutsi zuten, 25-21 gipuzkoarren alde.

Herriko biohondakina, baserrian konpostatzen

U surbilen gaika bildutako zati organikoarentzat egun dauden irtenbideen eskaintzan, bide berri bat zabaldu dute eta aste hasieran aurkeztu zuten Usurbilgo Udalak eta Behemendi elkarteak; baserri konpostaren proiektua. Egitasmo pilotua, Txokoaldeko Lartzandieta baserriarekin lankidetzan martxan jarri dutena.

Denborarekin parte hartzeko prest leudekeen baserri gehiagotara hedatu nahi lukete egitasmo hau. “Helburua, herrian sortutako hondakin organikoa herrian bertan kudeatzea da, ikuspegi zirkularra landuz”, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietaren esanetan. Nola? “Gai organikoak Behemendi-aren esku uzten dira, herriko baserriarrek azpiegitura egokien bidez konposta sortu eta erabil dezaten”. Modu honetan, hondakinak lehengai bilakatzen dira naturara itzulita. “Hondakinen kudeaketa jasangarrian, ekonomia zirkularrean eta garapen lokalean oinarritutako proiektua da beraz”, alkateak argitu duenez.

Usurbilek urtero biltzen dituen 700-800 tona biohon-



Parte hartzeko prest leudekeen baserri gehiagotara hedatu nahi lukete egitasmo hau.

KOLDO HUEGUN, LARTZANDIETA BASERRIA

“Erabat uztargarriak dira gure jarduna eta konpostatzeko prozesu bat”

dakinetik 48 aurrerantzean Lartzandietan kudeatu ahal izango dituzte. Txokoaldeko baserri honek zalditegia eta Lumagorriren baitan lanean diharduen Borda Txuri oilasko haztegia ditu. Konpostatzeko proiektu hau abian jarrita, Kol-

do Huegunen esanetan, “hemeren frogatzen da erabat uztargarriak direla gure jarduna eta konpostatzeko prozesu bat”. Huegunek nabarmendu zuen moduan, betidanik izan dute “ekoizteko era jasangarri eta arduratsuaren” testuinguruan.

Lauzpabost hilabeteko prozesua

Landutako konposta, baserrian bertan erabiliko dute. “48 tona modu errazean, herrian bertan eta baserriarren laguntzarekin konpostatu eta erabiltzeko sistema bat da erakusten

ari garena gaur”, nekazaritza alorreko udal teknikari Ibon Goikoetxeak adierazi zuenez. Aipatu moduan, Usurbilen gaika bildutako biohondakinaren zati bat konpostean bilakatuko dute Lartzandietan, oilategiko zimaurrea baliatuta. “Bere hondakin bat konpostatzeko baliabidean bilakatzen dugu”. Biohondakinarekin nahastu eta “horren ondoren, jarraipen bat egiten dugu; tenperatura, hezetasuna... dena egoki doala ikusteko”. Lauzpabost hilabeteko prozesuaren amaieran konposta eskuratzen da.

“Herri lorpen baten ondorio”

Prozesu luzeago baten baitan kokatzen du Udalak proiektu hau, urrats berri gisara. Atzera begira jarrita hondakinen kudeaketan Usurbilek egin duen ibilbide aitzindaria erreparatu zuen Solaberrietak. 2009an jarri zen atez ateko bilketa martxan, %30tik %71ko gaikako bilketara igaro zen udalerrri hau eta iragan 2021ean, inoizko emaitza hobereenera heldu da, %87ra. 2011n abiarazi zuten bestalde, auzokonpostatze egitasmoa; 575 familia ari dira

etxean edo auzoan organikoa konpost bilakatzeko lanean. 2017an “Usurbil 0.0” sei urterako hondakinen prebentzio eta kudeaketa programa jarri zuten martxan, “gure ahalmen tekniko eta ekonomikoa mugatua izan arren”. Emaitzak eskutan “bikaintasuna helburu”, norabide horretan dago kokatua Usurbil, “nahiz eta jakin badakigun badugula zer hobetua. Emaitza horiek zerbait badira, herri lorpen baten ondorio dira”. Udalaren eta herritarren

arteko urteotako lankidetzagoraiatu zuen alkateak. Eta bide horretan kokatu zuen, aste hasieran Txokoalden aurkezturiko egitasmo berria.

Nekazarien jardunari bultzada

Lartzandietan martxan duten egitasmoak bete-betean bat egiten du landa garapenean eragiten diharduen Behemendi elkartearen zereginekin, Mikel Zendoia ordezkariak adierazi zuenez, “batez ere baserriarren eguneroko lanean osagarria den

proiektu bat delako eta herrian baserriarrek duen behar bati erantzuten diolako. Gainera nekazariaren beraren jarduna bultzatu eta indartzen du”. Egitasmo pilotua izateak konposta nola egin ikasteko balioko die la nabarmendu zuen. Eta ikasitakoa zabaltzeko. “Gure lan esparrua Donostialdea eta Bidasoa bailara dugularik, beste herrietan ere halako aukerarik sortuko balitz”, Lartzandietako esperientziatik jasotakoa baliagarria izatea espero dute.

“Usurbilgo kultur ekosistema hobetzeko helburu batzuk finkatu ditugu”

Usurbilgo kulturen bilgunea eraikitzeke prozesu betean da herria hilabeteotan. Prozesu honetan parte hartzen ari diren hiru kide elkarrizketatu ditu NOAUA!-k.

NOAUA! Zein izan zen prozesu honen abiapuntua?

Aitor Agirre: Herriko kultur mugimenduetan gabezia batzuk zeudela ikusita herritar talde bat elkartu ginen. Herriko kultur elkarteak eta norbanako sortzaileak zer egoeratan zeuden jakin nahi izan genuen. Galdetegi bat helarazi genien eta bertan gabezia batzuk antzeman genituen. Orduan erabaki genuen kultur taldeei deitzea, datuak aurkezteko. Hor erabaki zen jendea prest zegoela gabezia horiei aurre egiteko. Dijitalidadea-koen laguntzarekin dinamika batean sartu gara. Usurbilgo kultur ekosistema hobetzeko helburu batzuk finkatu ditugu eta horretan ari gara lanean.

Antton Aranburu: Hori da gure planteamendua, Usurbilgo kulturzaileok sortutako gunea sortzea.



“Usurbilen kultura bizirik dago, hori da indargune handiena”.

ELKARLAGUNTZA

“Herri auzoen arteko harreman sarea eta elkarlaguntza

Kaxkotik harago zabaldu daitekeen zerbait da”

Bilgune horren oinarria lantzen ari zarete hilabeteotan.

Antton A.: Oinarri horiek, ze helburu izan behar ditugun, nola antolatuko garen eztabaidatzen.

Maialen Iñarra: Talde bakoitzak bere gabeziak identifikatu zituen galdetegiaren lanketari esker eta elkar laguntzeko prest agertu ginen. Bilguneak ere ho-

rrerarako balio nahi du, elkarlanean Usurbilgo kultur sarea edo ekosistema elikatzeke.

Antton A.: Elkar lagundu eta koordinatzeko. Herri honetan ekimen piloa egiten da eta poztekoa da baina askotan elkarri talka eginez. Hori koordinatzeko herraminta bat izango litzateke.

Potxoeneako saioretan zer azaleratu da orain arte?

Aitor A.: Indargune handiena da batez ere Usurbilen kultura bizirik dagoela. Astero izaten dira ekitaldiak, oso jende desberdinak antolatutak eta oso jende

anitzarentzako. Eta justu horrek berak sortzen du gabezia, atzean dagoen lanketa guztia ez da ikusten. Identifikatu den beste gabezia, sortzaile askok plaza fisiko eta digitalak falta dituztela da.

Antton A.: Kultur taldeak sortzea da helburuetako bat, kultur talde horiek, euskal kultura kontsumitzeko zaleak sortzeko. Eta hor sartuko litzateke transmisioa, beste adar garrantzitsua.

Aitor A.: Helburu nagusietako bat euskal kulturaren transmisioa bermatzea da.

M.I.: Herrian kultura bizi-bizirik dago, aniztasun handia. Baina ba al dakigu zergatik dauden sortuta oraingo kultur taldeak eta etorkizunean zer sortu daitekeen? Belaunaldi arteko lotura hori ere garrantzitsua da. Orduan hor ere memoria ariketa eta transmisio ariketa baten beharra identifikatu da.

Aitor A.: Kanpotik askotan oso polita ematen du, baina jendea animatu nahi dugu antolatzaera, barrutik ere gauzak nolakoak diren ikusteko.

“Kaxkotik haratagoko herri bat da Usurbil”

NOAUA! Bada dena egina dagoenaren ustea.

M.I.: Ekimen berdinak antolatzen pertsona berdinak askotan. Elkarlaguntzaren asmoa ere hortik dator, talde bat edo ekimen bat giza baliabideen laguntza faltan bada, herrian sare bat izatea non badakizun prest egongo dela zuri laguntzeko. Bestalde, asko landu dugun gai bat izan da ere Usurbil diogunean, Kaxkotik haratagoko zerbait dela. Seguraski, herri auzoen arteko harreman sarea eta elkarlaguntza hori Kaxkotik harago zabaldu daitekeen zerbait dela.

Zaindu beharreko sarea da hortaz.

M.I.: Herri eta auzoek ere plazak eskaintzen dituzte. Baditugu Kaxkotik urrunago aukerak gure kultur egitasmoak aurrera eramateko, horiei bizitasuna emateko.

Herria inplikatu azkenean.

Aitor A.: Kultur Birak eragin zuen lehen aldaketa, Jai Bartzordea eredu berri honetara ekartzea. Badirudi herriak ondo hartu zuela. Jende askok parte hartu eta lagundu zuen. Bide horri jarraituz, herriaren parte hartze hori bultzatzen jarraitu nahi dugu.

Prozesu honetan, zer bide jorratzea espero duzue?

Antton A.: Kultur eragileei helaraziko diegun oinarriko dokumentu bat sortu nahi dugu, gero beraiek ekarpenak egin ditzaten. Ekainean ekitaldiren bat egin nahi dugu hau dena kultur mugimenduko kideei eta zaleetuei azaltzeko.

M.I.: Eta jarraipena izango du bide honek. Kontziente gara ere prozesuan batzuk parte hartu dugula baina dinamika honetan ekosistemako eragile guztiek parte hartzea nahi genuke; antolatzaileek, zaleek, sortzaileek, gurasoek, komunikatzaileek,... Denen inplikazioa izatea gus-

tatuko litzaziguke. Oinarri bat adosten ari gara, baina nola-bait beti irekia izango dena.

Aitor A.: Talde irekia da, edonork egin dezake ekarpena.

M.I.: Aurrera begira badago identifikatutako gabeziei aurre egiteko proiektuak elkarlanean sortzeko lan taldeak osatzeko asmoa. Lan talde desberdinen bidez proiektu desberdin politak sortzeko gogo handia eta ilusioa dago.

Aitor A.: Beti talde bakoitzak bere jendearekin lan egitera ohituta egon ostean, jende berriarekin lan egiten ikasiko dugu eta hori ere herriarentzat oso onuragarria da.

Korrika badator

2 2. korrika badator gure artera. Ostiral goizaldean helduko da, ia 2.000 kilometroko bide luzea egin ostean. Bide horretan ere izan da beste zonalde batzuetan lekukoa hartu duen usurbildarrik. Geroz eta ohitura handiagoa baita, norbere sorterritik kanpo euskararen aldeko lasterketan parte hartzekoa. Galdetu bestela, lerrootako herriko bi koadrila hauei.

“Oso denbora gutxian emozio asko partekatzen dituzu”

NOAUA! Zenbagarren edizioa herritik kanpo Korrikan parte hartzen?

Aurten hirugarrena.



“Espartzatik Galarrera ere egin dugu Korrika”. Usurbildik joan ziren aurreko astebukaeran.

Nola bururatu zitzaizuen ideia hau?

Kuadrilan bati okurritu zitzaion taldean joateko eta denak animatu ginen. Urtetik urtera gehiago animatzen joan gara.

Nondik nora ibili izan zarete urteotan?

2017an, Urzainkin ibili ginen korrika, 2019an Olatzen egin genuen eta aurten Espartzan egin dugu korrika.

Lekukoa hartu izan duzue gainera, ze oroitzen duzue?

Polita da kuadrilan esperientzia hori bizitzea, lagunekin, seme-alabekin... Oso denbora gutxian emozio asko partekatzen dituzu eta berriz ere hurrengorako gogoz zaude seguitan.

Korrikaren aitzakian, Euskal Herriko txokoak ezagutzeko parada izango zenuten. Non parte hartu duzue gusturago eta zergatik?

Korrika egin eta gero inguruko herriren batean hartzen dugu ostatu aterpetxeren batean eta toki politak ezagutu ditugu bai. Lehen urtea berezia izan zen,

ESPARTZAN KORRIKA

“49 lagun joan gara. Normalean herri txikiren batera joaten saiatzen gara. Gustura hartzen gaituzte”

lehen izateagatik eta gaez ere korrika egin genuelako. Aurtengoan ere elurretan korrika ibiltzeak oroitzen politak utziko dizkigu.

Aurten nondik nora ibili zarete?

Espartzatik Galarrera ere egin dugu Korrika.

Ez zarete gutxi, zenbat lagun bildu ohi zarete?

49 lagun joan gara. Normalean herri txikiren batera joaten saiatzen gara eta horrelako taldea ikusten dutenean harritu egiten dira, baina gustura hartzen gaituzte.

Usurbilen beti Korrikari egin zaion harrera jendetsua ikusita, zer nolako giroa bizi izan duzue izan zareten tokietan?

Korrikak emozioa sortzen du pasatzen den txoko guztietatik eta modu batera edo bestera, hori nabaritzen da. Astebukaeratan jende asko mugitzen da Korrikaren aitzakian eta motza izaten bada ere, aurreko eta ondorengo giroa ederra izaten da beti.

Egitaraua

Apirilak 7, osteguna

■ 22:00 Gazte afaria Aitzaga Elkartearen.

Antolatzailea: Usurbilgo gazte mugimendua.

Apirilak 8, ostirala

■ 5:30 Zumba saioa Mikel Laboa plazan.

■ 6:00 Gazte mugimendua Kalezarren duen kilometrorra kalejira.

Antolatzailea: Usurbilgo gazte mugimendua.

■ 6:24 aldera 22. Korrika Agi-

nagako Mapilera helduko da. N-634 errepidetik barrena 6:40 aldera Usurbila eta 6:50 aldera Zubietara.

■ Korrika igaro ondoren, txokolate jana Aginagan Jai Batzordearen eta Antxomolantxa elkartearen eskutik eta Usurbilgo frontoian 7:45 aldera, 8:00ak aldera herri gosaria Zubietako plazan.

■ 15:00 Korrika Txikia Zubietan eta merendola.

■ 18:00 Ibilbide kulturala Etumeta AEK euskaltegitik abiatu-

ta: musika, dantza, literatura, bertso eta abestiak... eta umorea, umorea erruz!

Apirilak 10, igandea

■ 12:30 22. Korrikaren amaiera jaia Donostiako Bulebarrean. Segidan, egun osoko jaialdia Alde Zaharraren bueltan: kontzertuak, kale animazioa, haurrentzako ikuskizunak, jan edana...

■ Antolatzaileak: eragile ezberdinak elkarlanean.

“Bizi beharreko esperientzia da hau”

NOAUA! Nondik sortu zaizue Nafarroa hegoaldean Korrikan parte hartzeko ideia?

Txirristrako terrazan kafe bat hartzen.

Lehenengo aldia Usurbildik kanpo Korrikan parte hartzen duzuela?

Kilometroa erosi eta halako plan batean denok batera joan garen lehen aldia izan da.

Nola hautatu zenuten Korrikan parte hartzeko eremua?

Asteburua izatea nahi genuen, igande goiz bat, haurrentzako egokia zen ordutegia. Zonaldea argi genuen; Nafarroa hegoaldea izan behar zuen, bertan zeudelako aukera gehien. Korella eta Zintroniko artean parte hartu genuen.

Hemen ohituak gara Korrika jendetsua ikustera. Bestelako errealitate batekin egingo zenuten topo Nafarroa hegoaldean?

Bai. Kalean nongoak ginen galdezka etortzen zitzaizkigun. Asko ez ziren jabetzen Korrika pasatzekoa zenik. Azaldu genien. Ekimen hauei esker, euskararen aldeko konpromi-



Txirristrako terrazan kafe bat hartzen bururatu zitzaizen ideia.

KORELLAN KORRIKA

“Kilometroa erosi eta halako plan batean denok batera joan garen lehen aldia izan da”

soa haraino eramateko aukera dugu eta aukera hori ezin dugu galdu. Aurreneko aldia zen, jakitea hor zaudela itxaroten zu bakarrik, errepide alboan, beste inor ez dago. Ibilgailuak pasatzen dira eta batzuk klaxonak jotzen, besteek arraro begiratzen... Gure kasuan Korrika ordu erdiko atzerapen batekin heldu zen baina une hori badatorrela ikusteak, haurrak ikustea ez

dakitela zer datorren baina badakite zerbait badatorrela, haiek mugimendu horretako parte izango direla jakitea... Oso une berezia da. Berriz ere bueltatuko garela seguru.

Txikienek lehen Korrika izango zuten?

Gehienentzat. Gehienek ez zekiten zer zetorren, galdetu egiten zuten, erantzuten genien zergatik ginen han....

Eta zer nolako esperientzia izan zen?

Oso oso ondo pasa zuten, gehiago nahi dute. Ostirala noiz iritsiko zain dira, berriz ere Usurbilen parte hartzeko.

Hurrengoan bat ez, gutxienez hiru kilometro erosteko eskatu digute.

Zeinen eskutik jaso eta nori eman zenioten lekukoa?

Beasaineko koadrila baten eskutik jaso genuen lekukoa eta pailazoz mozturrotuak zeuden taldeari eman genion.

Zuek bakarrik izanda, hartue- man berezia sortuko zen antolatzaileekin?

Oso harrিতuta zeuden hainbeste ume ikusita. Hamar familia joan ginen eta 24 haur eraman genituen. Ehun metro bakoitzeko antolatua genuen haur batek lekukoa hartzeko. Harrituta zeuden eta haiek txaloka denbora guztian, beraiek guri eta guk beraiei.

Errepikatzeko moduko esperientzia beraz.

Bai. Hurrena hiru kilometro hartu beharko ditugu, gutxitxo geratu baitzaigu bakarra. Koadrilan, bai bakarka, bai familian egiteko modukoa da. Denok oso hunkituta amaitu genuen gure kilometroa. Bizi beharreko esperientzia da hau. Animatu denok!

Lekukoa nork, nondik, nora

Guztira 11 kilometro egingo ditu 22. Korrikak Usurbilgo lurretan barrena. Tarte horretan, 14 lekuko aldaketa biziko ditugu. Mezu sekretua gordeta daraman ikurriñadun euskarria nortzuk eramango duten? Hemen duzue zerrenda:

- 1.- 1976 Aginagako Mapil: Aginagako Jai-Batzordea eta Antxomolantxa.
- 2.- 1977 Errasti etxea: San Praixku Guraso Elkarte.
- 3.- 1978 Lasao Etxea: Berriola Fagor Automation.
- 4.- 1979 Kaparotz baserria: Udarregi Ikastola.
- 5.- 1980 Bordatxo taberna: Udarregi Ikastolako LH6-ko

ikasleak.

- 6.- 1980 Txalaka saltokia: Etumeta AEK euskaltegia.
- 7.- 1981 BM supermerkatua: NOAUA! K.E.
- 8.- 1981 Kalezarko Haur Eskola pareko etxeak: Kabiene.
- 9.- 1982. Kalezar: Usurbilgo gazte mugimendua.
- 10.- 1983 Santueneko zubia: Elhuyar.
- 11.- 1984 Zubietako Amiri baserria: Usurbilgo Udala.
- 12.- 1985 Larraitz etxea: Zubietako Herri Batzarra.
- 13.- 1985 Iturritxo etxea: Zubietako Eskola.
- 14.- 1986 Irigoien etorbidea: Usurbilgo Lanbide Eskola.

Ikastolatik AEK laguntzen

Urtero elkartasun proiektu bat lantzen dute eta aurtengoan AEK laguntzea erabaki dute, une eta modu ezin egokiagoan. 22. Korrika bidean den honetan, euskararen aldeko lasterketari lotutako materiala saltzen aritu dira egunotan Udarregi Ikastolako LH 6. mailako ikasleak, arratsaldero, Agerialde sarreran, pinak eta petoak hain zuzen. Saltzeke geratzen zaiena; pinak lehen egunetan agortu zitzaizkien eta peto guztiak saltzeko askorik ez zitzaien falta lehen egunotan.

Aipatu moduan, salmenta honetatik jasotako dirua AEK

laguntzera bideratuko dute. Korrikak Usurbilen egin duen ibilbide zatiaren baitan, kilometro bat erosi dute hain zuzen. Eta horrek lekukoa eramango dutela esan nahi du. LH 6. mailako ikasleek eramango dute, Kaxkoan hain zuzen; Bordatxo parean hartu eta herri erdiguneari itzulia emango diote.

Lekukoa jaso, Udarregi Ikastolaren beraren eskutik jasoko dute gainera. Kaparotz baserri parean, N-634 errepidean hartuko du ikastolak lekukoa. Erosketa hau laguntzeko errifak saltzen ere aritu dira.

*Ez eman buruhauste gehiago zure kontuari!
Esku onetan jarri!*

**ELORZA &
ASOCIADOS**

**IREKIERA
BERRIA USURBIL**



**AHOLKULARITZA OSOA
ENPRESA ETA AUTONOMOAK**

1. Aholkularitza

Autonomoak eta enpresa txikiak, lan eta finantza kontabilitatea, zergak, BEZa, errenta kontua, alokairu kontratuak, nominak, immigrazio prozedurak, etab.

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 9:30 - 14:00
Ordutegitik kanpo hitzordua eskatuta

elorzaasociados.arantza@outlook.es
elorzaasociados.valeria@outlook.es

Zubiaurrena kalea 3 azpia, 20170, Usurbil, Gipuzkoa | Mug. 636746863 / 943906268

2. Aseguroak

Kontsultatu edozein aseguru mota inolako konpromisorik gabe.
Utzi adituek arduratzen!

HASTEN GARA?



noaúa

jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter noaúa

www.noaúa.eu



Ate Irekiak

HARTU
HITZORDUA!!!



Maiatzak 4



Erdi Maila: 16:00 - 17:30

Goi Maila: 17:30 - 19:00

Maiatzak 7



Erdi Maila: 10:00 - 11:30

Goi Maila: 11:30 - 13:00



943 364600



adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus

Larunbatean, dantza plazara

Orbeldikoen 10. Dantza Eguna apirilaren 9an. Udaberri honetarako antolatu duten zikloari hasiera emango dio, 10. edizio borobilak:

Apirilak 9, larunbata:

X. Dantza Eguna

■ 12:00 Dantza-kalejira Mikel Laboa plazatik abiatuta.

■ 14:00 Herri bazkaria Agerialden.

■ 17:00 Tranpaldio irekia Agerialden.

■ 22:30 "Hamar" ikuskizuna frontoian.

Amaitzean, Rukula taldearen kontzertua.



12:00etan hasiko da Orbeldik antolatu duen X. Dantza Eguna, Mikel Laboa plazatik abiatuko den kalejira batekin.

Apirilak 30, larunbata:

V. Dantzari Topaketa

■ 16:00 Harrera dantza-talde gonbidatuei.

■ 17:00 Kalejira udaletxetik abiatuta.

■ 19:30 Dantza-emanaldia frontoian.

■ 23:30 Erronomia Alaiki taldearekin.

APIRILAK 9 LARUNBATA

**Herriko dantzari,
antzezle eta musikariak
parte hartuko dute
'Hamar' ikuskizunean**

Maiatzak 7, larunbata:

III. Dantzari Txiki Eguna

■ 10:00 Harrera dantza-talde

gonbidatuei.

■ 11:00 Kalejira udaletxetik abiatuta.

■ 13:00 Dantza-emanaldia frontoian.

■ 17:30 Dantza gidatuak Ttipika taldearekin frontoian.

Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.

Kirol Astea LH-ko ikasleentzat

Usurbil Futbol Klubak, Usurbil Kirol Elkartek eta Pagazpe pilota elkarteak Usurbilgo Kirol Astea antolatu dute apirilaren 19tik 22ra LH-ko ikasleentzat. Izen ematea zabalik izango dute apirilaren 10era arte.

Eguneko kirol jarduera ezberdin bat egingo dute, antolakuntzan parte hartzen ari diren kirol elkarte bakoitzaren jardunaren erakusleioa izango da. Alegia, egun batean pilotari lotutako jardueretan parte hartuko dute gaztetxoek, hurrengoan eskubaloian jardungo dute eta beste egunotako batean futbolekin. Lau eguneko kirol jardueren astea, ibilaldi

batekin borobildu asmo dutela berri eman dio antolakuntzak NOAA!ri.

Ohiko kirol azpiegituretatik atera nahi dute gainera; eta jarduerok herriko txoko ezberdinetan egin. Ahal dela, aire libreko espazioak baliatu asmo dituzte.

Helburu argi batekin; haur, gaztetxo eta nerabeen artean kirola sustatzeko. Eta ikasturtean zehar kirol jardueraren batean parte hartzen ari diren bati baino gehiagori, oportetean ere gustuko duten kirol ekin-tzetan aritzeko aukera eskainiko diote, baita beste jarduera batzuk probatzeko ere. Hel-

buru beraren alde lanean diharduten eragileak dira egitasmo honen bueltan batu diren herriko hiru klubak.

Usurbilgo Kirol Astea

■ Epea: apirilak 19-22.

■ Ordutegia: 10:00-13:00.

■ Biltzeko hitzordua: 10:00etan Usurbilgo frontoian.

■ Nori zuzendua: LH 1-6 mailako ikasleei.

■ Izen ematea: apirilaren 10era arte, <https://forms.gle/gYWk-Fs9yZVNkW763A> helbideko formularioa beteta.

■ Antolatzaileak: Pagazpe Elkartea, Usurbil Kirol Elkartea eta Usurbil Futbol Taldea.

Gironako Orquesta Jove de la Selva

bisitan etorriko da

Korrikari eta dantzari eskainitako asteburu honetan, bisitariak izango ditugu Usurbilen; Zumarte Musika Eskolakoekin egingo duten trukaketaren baitan, Gironako La Selva eskualdeko "Orquesta Jove de la Selva"-ko kideena. Bi aste barru Usurbilgo musika eskolakoek bidaiatuko dute Girona alde-dera.

Zumarte-Girona trukaketa:

Apirilak 8, ostirala

■ 18:30 Gironako "Orquesta Jove de la Selva"-ko kideei ongi etorria Usurbilgo udal-tertxe aurreko plazan.

Apirilak 9, larunbata

■ 18:30 Zumarteko eta Gironako musika eskoletako kideen kontzertua Usurbilgo frontoian.

Apirilak 21-24

■ Zumarteko ikasleak Gironan izango dira.

■ Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

Hiru atxilotu, Andatzako

hilketaren harira

Hiru lagun atxilotu zituen martxo amaieran Ertzaintzak otsailaren 27an Andatzan agertu zen gorpuaren kasuarekin zerikusia izan dezaketelakoan.

Haietatik bi espetxeratzeko agindua eman du epaileak, homizidio delitua egotzita. Hirugarrena baldintzapean aske utzi du, gertatutakoa ezkutatzea leporatu diote. Guztiek zituzten polizia aurrekariak.

Ikerketarako hainbat frogak bildu dituzten arren, zabalik jarraitzen du kasuak.

Adostasunik ezean, berriro grebara joango dira Igepak-eko langileak

Martxoaren 11n egin zuten lehen lan uztea, hitzarmen duin bat galdegiteko. Negoziazioetan emandako urrats eskasengatik mobilizazio zaratatsua deitu zuten ostiral hartan. Orduetik enpresako zuzendaritzarekin biltzen segi dute. Azken saiakearak egunotan egin dituzte, baina langileen batzordetik NOAUA!ri berri eman diotenez, “ez dugu akordiorik lortu Igepak-en enpresa-ituna negoziatzeko”.

Langileak bildu eta greba egitea erabaki zuten apirilaren lehenean. Goizeko 5:30az geroztik, egun osoz lantegi atarian mobilizatu ziren. Zumartegi industriagunerako sarbidean



Apirilaren 1ean Zumartegi industriagunerako sarbidean izan ziren protestan.

eskitako pankartetan argi ikus daiteke zeintzuk diren langileon eskaerak. “KPI gabe ez dago akordiorik” dio lantegi atariko aldarrietako batek.

Astelehenean lanera itzultzekoak ziren. Baina enpresarekin akordiorik erdiesten ez badute, apirilaren 7an berriz ere

grebara itzultzekoak dira eta lan uzte horri eusteko asmotan dira, udaberriko oporraldiko jai egunak heldu arte. Apirilaren 7an, 8an, 11n, 12an eta 13an beraz greba egitekotan dira. Eta egunok igarota akordiorik ez balego, ez dute baztertzen greba mugagabeari ekitea.

Harri Agirresarobe Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketan

Apirilaren 1ean Azpeitiko Zelai Eder Elkartearen Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketako 2. kanporaketa burutu zen. Bertan, herritarra den Harri Agirresarobe Rivadeneyra aritu zen kantari. **Iñaki Agirresarobek** bidali digu ondoko kronikatxoa:

“Harri Agirresaroberen gain, honako beste bost bertsolari ziren: Ane Zubia, Naia Arrizabalaga, Beñat Mateos, Xabier Albizu eta Aratz Lasa. Bakoi-tzak 7 bertso puntuagarri kantatu zituen eta egin beharreko lana honako hau zen: lau oina emanda bertsoa osatu, gaia emanda binaka zortziko handian, bina bertso, kopletan binaka bina bertso, puntuari erantzunez bertso bat eta gai emanda bertso bat.

Saio bizia eta polita burutu zuten baina urduritasuna presente egon zen. Lepo zegoen



“Saio bizia eta polita burutu zuten baina urduritasuna presente egon zen”.

ESKOLARTEKOA

**“Finala
apirilaren 29an
jokatuko da, Lasturren”**

elkarteko entzuleek ederki eskertu zuten gazteen lana. Azkenean, Naia Arrizabalaga

izan zen lehena. Zuzenean apirilaren 29an Lasturren izango den finalera sailkatu zen. Hirugarren eta azkenengo kanporaketa apirilaren 8an Lizartzan izango da. Garailea zuzenean finalera joango da. Gainontzeko hiru bertsolari hiru kanporaketetako puntuazioaren arabera sailkatuko dira”.

Desazkundeari buruzko hitzaldia

Anerreka ingurumen elkar-tearen eskutik, “Desazkun-dea: patu saihestezina nola bihurtu emantzipazio bide” izeneko solasaldia izango da apirilaren 28an, 18:30ean Sutegiko auditorioan. Joseba Azkarraga Etxagibel, soziologia doktorea, EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasle eta ikertzailea gonbidatu du Anerrekak hitzordura.

Apirilak 28 osteguna

■ 18:30ean Sutegin.

■ Hizlaria: Joseba Azkarraga Etxagibel.

Errigorako produktuak maiatzan iritsiko dira gure artera

Martxoaren 31n itxi genuen Errigoraren kanpainako produktuak eskatzeko epea. Eskaerak bideratu dituzuenontzako oharra; maiatzaren 10etik 13ra bideratuko dugu banaketa.

Olatz Salvador

Sutegin izan zen

Olatz Salvador musikariak kontzertua eskaini zuen igandean Sutegin. Auditorioa ia goraino bete zuen “Aho uhal” bere bigarren bakarkako lanaren aurkezpen-birako kontzertuan. Duo formatuan eskaini zuen emanaldia, eta txalo zaparrada ugari jaso zituen usurbildarren partetik.



‘Aho uhal’ diskoa aurkeztu zuen Sutegin.

“Geuretik Sortuak” egitasmoko beste bi sortze lan Sutegin ikusgai

Usurbilgo udalerria kide duen Udalbiltzak eskal sorkuntza bultzatzeko iaz abian jarritako “Geuretik Sortuak” egitasmoaren baitan hainbat ipuin, antzezlan eta film ekoitzi dira. Usurbilgo sortzaileek ere parte hartu dute ekimenean; Yolanda Arrietak eta Ugaitz Agirrek. Baita Eskal Herri luze zabaleko beste hainbat artistek ere. Prozesu honetan ondu diren bi lanez gozatzeko aukera izango dugu asteotan.

Apirilak 10, igandea

■ 18:00 “Bost Teilatu” pelikula Sutegiko auditorioan. Zuzendari Leire Egaña proiektzioan izango da.

■ Zehaztasunak: “Bost teiltaren azpian gertatutako bost istorio labur. Nork bere etxean Krak egin duten Ane eta Miren-en dolua; Ekaitz gazteak eta Inaxio edadetuak baserrian bizi duten katarsiak emandako Arnasa; Michelle paristarrak jaioterrira itzultzean deskubrituko dituen Hitzak eta nortasunaren gaineko galderak; paketea dagokion teiltatupera eramateko Erlojupekoa lehiatzen duen mezularia eta, azkenik, tentsioz eta arriskuz betetako Muga inguruan, babestuko duen teiltatu baten bila dabilen Kamaru gazte afrikarraren ezinegona”.

■ Izen-ematea: doan, usurbilkultura.eus atarian.

Apirilak 30, larunbata

■ 20:00 “Eresia. Lurra arin bekizu, ama” antzezlan Sutegiko auditorioan.

■ Ideia originala eta zuzendaritza: Oier Zuñiga.

■ Antzezleak: Eneko Gil, Belen Cruz, Oier Zuñiga.

■ Zehaztasunak: “Ama hil da, hori da egia. Kantu bat, dantza bat, erritu bat... lore bat eskaini nahiko nioke. Hildakoei go-



Udalbiltzak sustatu duen ekimen honetan usurbildar artistek ere hartu dute parte, tartean, Yolanda Arrieta idazleak.

APIRILAK 10 IGANDEA

**“Bost Teilatu”
pelikula ikus ahal
izango dugu
igandean Sutegin.
Zuzendari Leire Egaña
proiektzioan izango da**

razarre egiteko abesten ziren bertsoak dira Eresiak, baina nik jada, ez dut kanturik hildako ama agurtzeko.

Maite dugunaren heriotza

datorrenean, zer egin? Nola agurtu? Nola begiratu bizitzari? Maitasuna da akaso guztia- ren erantzuna?

Ohiko dolu errituak nahikoak ez direnaren sentsaziotik abiatuta, dispositibo poetikoen bidez bestelako dolu praktika esperimentatzeko xedea nuke, ekintza eszenikoa bera, dolu erritu kolektibo bilakatuz”.

■ Izen-ematea: 5 euro, usurbilkultura.eus atarian.

■ Antolatzailea: Udalbiltza eta Usurbilgo Udala.

Apirilaren 23an, Liburuaren Eguna

Apirilaren 2a, Hans Christian Andersen idazlearen jaiotegunean, Haur eta Gazte Literaturaren Nazioarteko Eguna ospatu ohi da. Testuinguru honetan, bi hitzordu antolatu ziren udal liburutegian.

Usurbilgo bi sortzailek kontaketa saio bana eskaini zuten; Yolanda Arrietak eta Ixabel Agirresarobek, hain zuzen. 2020ko martxoan osasun krisialdian murgildu ginenez geroztik, liburutegian bertan halako ekitaldiak ospatzen diren lehen aldia izan da.

Gogoan izan, apirilaren 23an Liburuaren Eguna ospatuko dela.

Autobus zerbitzua Gazte Martxara

Zugarramurdi, Erratzu eta Elizondo lotu eta Iruñean amaituko da apirilaren 14tik 17ra Ernaik antolatu duen Gazte Martxa.

Ekimen honetara joateko autobus zerbitzua antolatu du Usurbilgo Ernaik. Aitzagan, Txiribogan eta Txirris-tran duzue izena emateko aukera. “Gerturatu bertara eta izena eman! Animatu! Usurbildik talde polita goaz eta!”, iragarri dute sare sozialen bidez.

Peru Galbeteren “Beiratu” entzungai

Sortzaile usurbildarrak “Beiratu” izeneko lan berria kale-ratu du. “12 kantez osatutako lan honek, bizitzari begietara begiratu –edo beiratu– nahi dio. Beiratzea ere ba delako gauza bati beiraren ezaugarri edo itxura ematea, eder mantendu dadin –nahiz eta hauskor–. Eta ezinbestean, bizitzari berniz kapa bat

eman ohi diogu –hondatu ez dadin agian– diskoaren azaleko egurrek dutenaren antzekoa. Txikitan, lokartu aurretik sabaira begiratzen nuenean, begi pila bat ikusten nituen egur haietan niri begira. Eta gaur egun ere, ikusten jarraitzen ditut”. Abesti sorta berria, perugalbete.bancamp.com atarian duzue entzungai.



Abestiak perugalbete.bancamp.com atarian daude entzungai.

Apirileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Iritsi da beste urte bat egiteko garaia, eta adinak ez du barbatzen.

Hileko gomendioa: Egun batean gaztea zara eta hurrengoan aharrausi egin ondoren "amatxo maitia!" esaten duzu.

**CANCER**

Dantza eguna berriz hemen da eta irrikatan zaude hankak mugitzeko.

Hileko aholkua: Hauxe da zure aukera tranpaldotatik irekian dakizuna erakusteko!

**LIBRA**

Apirilaren 23an liburuaren eguna ospatzen da. Bada garaia teknologia alde batera utzi eta istorio eder batean murgiltzeko.

Hileko aholkua: Aurkituko al duzu liburutegiko bidea?

**CAPRICORNIUS**

Hilabete honetan diru kontuak asko zaindu beharko dituzu, argia eta gasaren eta argiaren fakturak ez direlako txantxetarako gauza.

Hileko aholkua: Ur hotzarekin eta ilunpetan dutxatzen hasi beharko duzu!

**TAURUS**

Hiru urte ondoren badator KORRIKA Usurbilera!

Hileko aholkua: Tipi-tapa, tipi-tapa: nolakoa da zure egoera fisikoa? Saiatu atzean ez geratzen!

**LEO**

Udaberrian gaude eta odola aztoratuko zaizu.

Hileko aholkua: Eguneratu itzazu ligatzeko teknikak, pixka bat herdoilduta zaude eta!

**SCORPIUS**

Autoestimua garrantzitsua da, baina hortik harroa izatea beste gauza bat da. Saiatu umilagoa izaten, denok bezala, akatsak baitituzu.

Hileko aholkua: Aurrekoan zure txistuarekin ia ito zinen eta!

**AQUARIUS**

Kezkatuta zaude Errusia eta Ukrainako gerrarekin, baina horrek ez du justifikatzen berekoia izatea.

Hileko aholkua: Ez duzu erosi behar dendako arroz eta pasta guztia!

**GEMINI**

Gasolinaren prezioa ikusita garraio publikoa erabiltzea pentsatzen zabilta.

Hileko aholkua: Ez al da hobe izango astoaren gainean lanera joatea?

**VIRGO**


Desiratzen zaude apirileko oporrak noiz iritsiko.

Hileko aholkua: Aprobetxatu itzazu, udarako bidea luzea izango da eta!

**SAGITARIUS**

Sagardotegiko kupelari zure izena jarri diote dagoeneko.

Hileko aholkua: Aizu, ez duzula punturik irabazi behar Sagardo Egunerako!

**PISCIS**

Osasuntsuago jaten hasi behar duzu.

Hileko aholkua: Gorputzak txorizo bokata eskatzen dizunean, sartu mandarina bat ogi artean!



ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 62292562

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetean, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko

nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusia, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. Interesatuok, hona deitu: 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabalen. 3 astetik behin asteburua

jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute asteburuetarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduen zaintza lanetan esterna moduan aritzeko lan bila nabil. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. Harremanetarako: 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

M^oCarmen izena jartzen duen pultsera bat aurkitu dugu Donostiako autobus paradan. Zure bada deitu 943362088 telefono zenbakira

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)



Zorionak bikote! Aurten zuen urtebetetzea ospatzeko aukera izango dugu. Primeran pasa zuen eguna familia eta lagun artean.



Zorionak Aiur! Apirilaren 2an 3 urte egin zenituen, muxu potolo bat zure familiaren partez!! Askoi maite zaitugu!!!

Usurbil KE-ren eskubaloi partidak**Apirilak 9, larunbata**

■ 16:00 Errendimenduko alebilen finalaren joaneko partida Zumaiaiko Lubaki kiroldegian.

Apirilak 10, igandea

■ 12:15 Senior mutilak Euskal Liga Oiarde Kiroldegian: Usurbil KE-Escolapios.

Errifa saridunak

■ Aialde Berri sagardotegian bi pertsonentzako menua: 319.
■ Bordatxo tabernaren eskutik, urdaiazpikoa: 1227.

Pilota partidak Usurbilen**Apirilak 8, ostirala**

■ 18:30 Alebin 2.mailan: Pagazpe (Vidal-Urkijo)-Eibar

■ Infantil 2.mailan:

-Pagazpe 2 (Ibarreta-Zabaleta)
-Hernani 2

Futbol partidak**Haranen****Apirilak 9, larunbata**

■ 09:00 Infantil neskek:
-Udarregi Usurbil FT "A"
-Udarregi Usurbil FT "B"

■ 11:30 Infantil mutilak:
-Udarregi Usurbil FT "B"
-Tolosa CF "B"

■ 15:30 Kadete mutilak:
-Usurbil FT "B"
-Kostkas KE "B"

■ 17:45 Preferente neskek:
-Usurbil FT
-Arizmendi KE

Apirilak 10, igandea

■ 10:45 Alebinak hobekuntza (2010):

-Usurbil FT
-Euskalduna SD
■ 12:00 Kadete mutilak:
-Usurbil FT "A"
-Zarautz KE "B"

Heriotzak**Saturnina Fernandez Gonzalez**

Martxoaren 27an hil zen, 97 urterekin

**Heriotzak****Patxi Aranburu Gaztañaga**

Martxoaren 28an hil zen, 84 urterekin

**Heriotzak****Juana Ignacia Balerdi Seguroa**

Martxoaren 30ean hil zen, 78 urterekin

**Heriotzak****Angel Garcia Alvarez**

Apirilaren 2an hil zen, 72 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 07 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 08 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 09 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 10 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astlehena 11 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 13 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Osteguna 14 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 15 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 16 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda

apirila

08 ostirala

- **22. Korrika** Goizeko 06:26ean iritsiko da Aginagara eta handik Usurbilera eta Zubietara. Informazio gehiago: korrika.eus.
- **Gironako Musika Eskolari ongi etorria.** 18:30ean Udaletxe aurreko plazan. Antolatzailerak: Zumarte Musika Eskola.

09 larunbata

- **X. Dantza Eguna.** Ikus 17. orrialdea.
- **Kontzertua: Zumarteko eta Gironako musika eskolak** 18:30 Usurbilgo frontoian. Antolatzailerak: Zumarte Musika Eskola.

10 igandea

- **"Bost teitau" filmaren proiektzioa** 18:00etan Sutegin. Izen ematea: doan, usurbilkultura.eus plataforman. Antolatzailerak: Usurbilgo Udala eta Udalbiltza.

Dantza Eguneko bazkarirako txartelak aurrez eskuratu behar dira

Apirilaren 9an Dantza Eguna ospatuko da eta Orbeldi Dantza Taldeko kideek pare bat ohar helarazi nahi dizkiete parte hartzeko gogoz direnei.

Bazkaria, 15 euro

Batetik, herri bazkari baten bueltan urteotako kide guztiak bildu nahi dituzte. Txartelak Txiribogan eta Artzabalen izango dira salgai; 15 eurotan bazkaria eta 25 eurotan kamiseta eta guzti.

Bazkalostean, 'tranpaldio irekia'

Bazkalosterako, tranpaldio irekia antolatu dute. "Aurrez etxean koreografia bat presatu eta gainerakoei emanaldia eskaini nahi diotenei horretarako aukera izango



Herri bazkarirako txartelak Txiribogan eta Artzabalen eskura daitezke.

dute. Parte hartzeko izena usurbildantzan@gmail.com helbidean eman beharra dago".

Ziortzaren kanpaldiko aurre izen-ematea ixtear da

Ostiral honetan (hilak 8) amaituko da Ziortzaren kanpaldirako aurre izen-ematea. Aurten ere bi txanda izango dira uztailaren 5etik 16ra DBH3 eta DBH4ko ikasleentzat, eta uztailaren 16tik 26ra DBH1 eta DBH2ko ikasleentzat.

Aurre izen-ematea egiteko galdetegi bat bete beharko dute gurasoek. Galdegegia ez baduzu jaso, email honetan eskatu: ziortzakanpaldia@gmail.com

Email horretara idatzi eta galdetegia jasoko duzu bueltan.

Datozenak



Garazi Navasen kontzertua

Iazko Laboaren Uztailearen baitan ari-zekoa zen baina osasun arazoak tarteko, akordeoi kontzertua bertan behera utzi behar izan zuen. Apirilaren 24an igandearekin Sutegin arituko da.

Apirilak 24, igandea

- Garazi Navasen emanaldia.
- 19:00etan, Sutegin.
- Sarrera: usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.

Sareren mobilizazioa

Hilabeteko azken ostiralean euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko mobilizazioa antolatu ohi du Sarek.

Apirilak 29 ostirala

20:00etan, Mikel Laboa plazan. Deitzailea: Usurbilgo Sare.

Artzi
 bazkariak EGUENERO
 afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
 ☎ 943 362725
 ☎ 688 690 361

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ZALDIGAIN
 ERREMENTARIA
 • Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
 • Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...
 www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
 Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
 Fax. 943300045

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas 2022

udaleku irekiak

Udajolas Usurbilen erroldatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago. Uztailaren 4an hasi eta 29an amaituko da, eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30

Izena emateko epea: apirilak 25etik maiatzak 5era (biak barne)

Izen-ematea egiteko lotura:

<https://forms.gle/DtCFxw5e4BZkT1Jk6>



noaua



Usurbilgo Udala

Noauak
Udajolas-erako
lan-poltsa osatzeko, zuzendaria eta
begiraleak behar ditu,
uztailean lan egiteko.

PROFILA:

2 hilabeteko esperientzia
Begirale titulua izatea / Zuzendari titulua
EGA edo baliokidea den agiria
Sexu delitua egiteagatik aurrekari
penalak ez dituela egiaztatzen
duen ziurtagiria.
Usurbildarrek lehentasuna

Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:
Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberi 3, Usurbil edo
elkatea@noaua.eus

Curriculum-a bidaltzeko azken eguna: **maiatzak 5**

noaua



Usurbilgo Udala



OSASUN GIDA 2022



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente parea doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urrunekeo lenteetan.

2 lente parea doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 19/22

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen
salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeke zerbitzu
tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



Kima

MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik